



Chinatown: zokoratuak eta zukutuak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Txina, 1417 urte inguruan. Zheng He almiranteak, Ming dinastiako enperadoreen soldatapeko esploratzaileak esan zuen posible zela “mundu osoa ibiltzea Txinatik irten gabe”. Ordurako Indiako Ozeanoan, Itsaso Gorrian eta Asiako hego-ekialdean zabaltzen hasia zen kolonia txinatarren sarea, eta hortaz ari zen esploratzaile txinatarra. Qing dinastiaren garaian, 1644tik aurrera, migrazioak behera egin zuen nabarmen. Baina XIX. mendean txinatar oldeak, nagusiki han etniakoak, bost kontinenteetara migratu zuten, etxean baino baldintza hobeen bila. Orduan sortu ziren Chinatown modernoak.

Dokumentuek jasotzen duten auzo txinatar zaharrena Manilakoa da, hainbat iturriren arabera 1594an sortua. Filipinasko koloniaren administratzaile espainiarrek egungo Binondo auzunean kontzentratu arazi zituzten Txinatik zioazen herritarrak. Ordurako filipinarak eta kolono europarrak bereizita bizi ziren hirian, eta lehenengo Chinatown hura baztertuen artean baztertuenak bereizteko erabili zuten, handik aurrera sortuko zirenak bezalaxe.

Western Sidney unibertsitatego Ien Ang ikerlariaren arabera, auzo horiek ghetto hutsak ziren, prekaritate izugarriko guneak eta “bertakoentzat guztiz arrotzak ziren haiek kontzentratzeko eta baztertzeko” erabiltzen ziren. Mespretxuz eta susmo txarrez begiratzen zieten txinatarrei eta auzo haiek “baz-



San Franciscoko (AEB) Chinatown 1900. urte inguruan.

terkeria sozial eta urbanistikoaren adibide ezin garbiagoak ziren”.

Baina “auzo txinatarren rolak eta esanahiak aldaketa sakona izan dute azken mendean”, Angen ustez. “Gaikako kontsumo gune bihurtu dira, ikuskizun turistikoak”. Aldaketa horren adibide garbiena Londresko Chinatown da. Hiriko lehen txinatar auzunea Tamesis ibaiaren ertzeko ontziolen inguruan sortu zen, prekaritate eta bazterkeria handiko eremuan. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, nagusiki Hong Kongetik etorritako migratzaile oldeak Soh-

kontzentratzen hasi ziren, eta 1970eko hamarkadatik aurrera, turismoa erakartzeko gaikako parkea loratzen hasi zen.

Duela aste batzuk, Madrilgo alkate Jose Luis Martinez Almeidak Usera auzoan Chinatown erraldoia eraikitzeke ekimenaren berri eman zuen. Eta proiektuak primeran erantzuten dio molde berriko auzo txinatarren ereduari: kontsumo hutsa du helburu eta estereotipo okerrak azpimarratzen ditu, apropiazio kulturala egin eta auzo txinatarren benetako iragan gordina ukatuta. ●



Mizerinok eztabaida piztu du

Mostafa Waziri Egiptoko Antzinaroko Kontseilu Goreneko idazkari nagusiak Miserinoren piramidea zaharberritzeko proiektu erraldoia aurkeztu du berriki: Gizako piramiderik txikiena granitozko blokez estaliko dute, jatorrizko itxura berreskuratu dezan. Wazirik proiektua gogo biziz defendatu arren, polemika

berehala piztu da sare sozialetan nahiz adituen artean.

Monica Hanna egiptologoaren ustez –Waziri bezala, egiptoarra bera ere–, “ondarearen zaharberritzeari buruzko nazioarteko akordio guztiak halako interbentzioen aurka daude. Hori bakarrik behar genuen, piramidea alikatatzea!”. ●